TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Igandea, 2013ko otsailaren 10a. IX. urtea. 2.542. zenbakia. **tolosaldea.hitza.info**

Tolosa CF Caja Rural Bidebide nesken txirrindulari taldea aurkeztu dute

Bi kadete, zazpi junior eta hiru elitez osatutako taldea izango du; Tolosako Udala ekainerako lasterketa antolatzeko lanetan ari da 7

Nesken taldea aurkeztu zuten, atzo, udaletxeko pleno aretoan. A. IMAZ

Amezketako talaiak eta Abaltzisketako txantxoak dantzara aterako dira, gaur

Makilak eta mozorroak hartu, eta baserriz baserri ibiliko dira; abaltzisketarrak gaur, eta amezketarrak gaur eta bihar ariko dira 6

ITZEA URKIZU

Haurrak protagonista. Zaldunita bezpera txikienen eguna izan ohi da Tolosako inauterietan. Goizean, dantzari txiki ugarik bete zituzten Alde Zaharreko kaleak. Buruhandi eta erraldoien laguntza izan zuten, eta baita txarangena ere. Arratsaldean, berriz, haur danborrada izan zen. Ibilbidea euripean egin bazuten ere, gaztetxoek makilak gogotsu astindu zituzten. 5

Komikia ▷ Gorka Salaberria

Iñigo Arretxe ▷ Inauterizalea

«Guk sentitzen duguna ezin dute sentitu kanpokoek»

Iñigo Terradillos

Iñigo Arretxerentzat (Tolosa, 1980) Ostegun Gizena eta Zaldunita dira Tolosako Inauterietan berezienak. Bata lehenengoa izanik irrikaz egoten delako jaiak iristeko, eta bestea era berezian bizitzen dituelako, konpartsa eta guzti. Mozorrotzea ere asko gustatzen zaio, eta txikitatik egiten duen zerbait dela dio.

Nola bizitzen dituzu inauterien aurreko asteak?

Urduri, tentsio handiarekin. Izan ere, inauteriak noiz iritsi irrikaz egoten naiz. Hainbeste prestaketa eta gero festak hasteko gogo handiarekin bizitzen ditut azken egunak.

Zer dira zuretzat Tolosako inauteriak?

Herriko festarik handienak dira, tolosar peto-petoak garenontzat jairik ikusgarrienak. Festa giroan, elkarrekin, lagunartean igarotzeko egun paregabeak dira. Urteko egunik dibertigarri eta onenetakoak. Egunerokoez une batez ahazteko bide ematen dutenak, gainera.

Urtero mozorrotzen zara? Zein mozorro gogoratzen duzu?

Bai, urtero mozorrotzen naiz, tolosar eta inauterizale izanik hori ezinbestekoa baita. Pasa den urteko mozorroetako bat, esaterako, oso dibertigarria izan zen. Teoz irten ginen mozorrotuta lagunak, eta ni *Teo dutxan* nintzen.

Txarangazalea al zara? Txarangekin pasatzen duzun unerik onena?

Txarangazale amorratua naiz, eta asko gustatzen zait txarangen erritmora kalean dantzan aritzea. Ostegun gaua polita da, lehen eguna izaki txarangako doinuen gose izaten baikara. Zaldunita egunekoa ere berezia izan ohi da. Txarangaren atzetik joaten gara zezen plazarako bidean, eta hangoa amaitzean txarangari laguntzen diogu Alde Zaharrerako bidean. Oso polita izaten da.

Plataforma edo karrozaren batean ateratzen al zara?

Bai. Zaldunita eta asteartitan koadrilan irteten gara, eta beti prestatzen dugu konpartsa txiki bat. Egun politak izaten dira, egun osoa kalean ematen dugulako.

Denbora asko ematen al duzu mozorroa prestatzen?

Batzuetan besteetan baino gehiago. Koadrilakoen arten erabakitzen dugu mozorroa, eta urte batzuetan beste batzuetan baino gehiago kostatzen da guztiak ados jartzen. Plataforma egitearena etortzen da. Inauterietarako hilabete edo falta denean hasten gara horretan, eta normalean asteburuak baliatu ohi ditugu.

Bisitan etortzen direnak, berdin bizitzen al dituzte inauteriak?

Ez dut uste. Nire ustez, kanpotik datozenak giroan sartzen saiatzen dira, baina tolosar ez direnek ezin dute sentitu guk sentitzen duguna inauterietan.

Nolako gorputza duzu Hausterre egunean? Zer pentsatzen duzu esnatzerakoan?

Egin ditudan parranden arabera izaten da, baina, normalean oso nekatuta izaten dut gorputza, eta egun pare bat behintzat behar izaten ditut errekuperatzeko. Hori bai, egunak ondo aprobetxatu ditudanaren sentsazioa izan ohi dut beti.

↓ Tragoxka batean

- **Egunik onena.** Ostegun Gizena eta Zaldunita.
- **Inauterietako une bat.** Zaldunita, konpartsarekin kalera irteten garen unea. Egun osoa izaten da oso ona eta dibertigarria.
- **Mozorro gogoangarri bat.** Teoren mozorroarekin oso ondo pasatu genuen. Atsoz jantzi ginenekoa ere oso ona izan zen.
- **Txaranga doinu bat.** *Baila negra*, zalantzarik gabe. Abesti hau eskatu ohi diegu beti txarangei dantza egiteko.
- **Eguna ala gaua.** Biak dira oso onak, eta bakoitzak du bere puntua. Ez nuke bat aukeratuko.

HITZA

Aisialdi taldeen bizipoza

Astelenitako protagonistak dira; ikastetxeetako ikasleak izaten dira kaleak alaitzen dituztenak

Rebeka Calvo Tolosa

Gaur hasiko da mozorroen festa Tolosan; azken hilabeteetan prestatuko karroza eta konpartsak aterako dira kalera, eta irudimena izango da nagusi Tolosako kaleetan. Bihar berriz, aisialdi taldeen txanda izango da.

Zer izango litzateke Astelenita ikastetxeetako haurren eta gazteen dantzarik gabe? Egun bat gehiago agian? Izan ere, Zaldunitan ateratzen diren askok, Astelenitan atseden hartu eta Asteartitan ateratzen dira berriz ere kalera, beraz, astelehenak bakarrak dira aisialdi taldeei esker.

Urteroko moduan, aurten ere, 6 aisialdi taldetako gazte, begirale eta gurasoak aterako dira kalera, dantzatzera. Oria kale inguruan elkartuko dira 10:00ak aldera, eta dena ondo dagoela ikusi eta gero, 11:00ak aldera hasiko dute kalejira. Goizean aterako dira lehenengo, eta bazkaldu eta zezenetara joan eta gero, urtero legez, arratsaldean berriz ere alaituko dituzte kaleak, 19:00ak arte.

Atsedena taldeko gazteak aurtengo dantza entseatzen. I. GARCIA LANDA

Atsedena

■ **Gaia.**
Pottokiez mozorrotuko dira, iaz (irudian) Lacasito eta Conguito gozokiez atera ziren.
■ **Kopurua.**
140 pertsona inguruko taldea.
■ **Adina.**
7 urtetik gorakoak.

Ttenttek

■ **Gaia.**
Disneyko bikoteez mozorrotuko dira, iaz (irudian) Cro Magnon gizon-emakumeez atera ziren.
■ **Kopurua.**
130 pertsona inguruko taldea.
■ **Adina.**
4-5 urtetik gorakoak.

Kirikiño

■ **Gaia.**
Ardi latxez mozorrotuko dira, iaz (irudian) Willi Fog abentura pertsonaiaren marrazki bizidunak ekarri zituzten gogora.
■ **Kopurua.**
400 pertsonatik gorako taldea.
■ **Adina.**
11 urtetik gora.

Kazkabarra

■ **Gaia.** Nazioarteko abeslariez jantziko dira: Rihanna, Shakira, Lady Gaga, King Afrika, Psy..., iaz (irudian) Irrien Lagunetaz atera ziren.
■ **Kopurua.**
420 pertsona inguruko taldea.
■ **Adina.**
8 urtetik gora hasi eta batxilergora bitarte.

Txiribitu

■ **Gaia.** Tintin, kapitaina, zientifikoa eta Dupon irudikatuko dituzte, iaz (irudian) Jackson 5 kantarietaz atera ziren.
■ **Kopurua.**
110 pertsona inguruko taldea.
■ **Adina.**
10 urtetik gora.

San Bernardo

■ **Gaia.**
Grease filmeko pertsonaiez mozorrotuko dira, iaz (irudian) mexikarrez atera ziren.
■ **Kopurua.**
80 pertsona inguruko taldea.
■ **Adina.**
6 urtetik gora.

tolosaldea.hitza.info

Jarraitu inauteriak *ww.tolosaldea.hitza.info* helbidean:
■ **Ostegun Gizeneko, Ostiral Meheko eta Zaldunita bezperako ekitaldien bideoak eta argazki galeriak.**
■ **Egitarau osoa.**
■ **Inauterietako garraio publikoen ordutegiak.**
■ **Guardiako farmaziak.**
■ **Azken albisteak.**
■ **Papereko edizioa.**
■ **Eta askoz gehiago.**

«Ez dut imajinatzen Astelenita aisialdi talderik gabe»

R. C. Tolosa

Xabi Gomez Kirikiño taldeko begiralea da. Urte askotako esperientzia du; beti hartu izan du parte Astelenitan, lehenengo, gazteagotan, partaide bezala eta orain begirale moduan.

Nola hasten duzue Astelenita?
09:00etan elkartzen gara eskolan, eta aurpegiak margotu behar badira, margotu egiten ditugu, jantziei azken ukituak eman... Umeak prestatzen ditugu. Ondoren, entseguren bat egiteko denbora ematen badigu, azken entsegu bat egiten dugu. Eta handik Oria kalera joaten gara, bertan elkartzen baikara aisialdi talde guztiak dantzak ikusteko eta abar. Hamaiketakoa egin ondoren hasten gara.

Bazkaldu ere denak batera egiten duzue.
Umeek ogitartekoak ematen dituzte eta guk salda eta pastelak ematen dizkiegu, eguraldia hotza bada salda ederki sartzen da gainera! Eskolan bazkaltzen dugu, denak batera.

Eta gero, zer?
Bazkaldu eta gero zezenetara joaten gara, eta laugarren zezena arte edo egoten gara bertan. Nafarroa etorbidean hasten gara berriz ere dantzak egiten, eta 19:00ak arte edo egoten gara dantzan. Egun luzea izaten da, baina inauterietan normalean, egunak luze joaten dira.

Haurrak protagonista izateko aukera ematen du Astelenitak, ezta?
Tolosarrak eta inauterizaleak garen momentutik haurrak ere inauterietan parte hartze aktiboa izan behar dutela argi dugu. Umeek oso ondo pasatzen dute.

Zer izango litzateke Astelenita aisialdi talderik gabe?
Ez dut imajinatzen astelehena aisialdi talderik gabe, egongo ez balitz antzeko zerbait sortu beharko litzateke.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Haurrak nagusi egun handienaren atarian

Udaberri dantza taldeak antolatutako dantzari txikiak eskualdeko hainbat haur elkartu ditu Zaldunita bezperan

Itzea Urkizu Tolosa

Azken orduko prestaketak osatzeko eguna izaten da Zaldunita bezpera, datozen hiru mozorro egunetarako. Itxuraldatzeko beharrezko osagarri guztiak biltzeaz gain, ordea, tolosarrek ez diote festari etenik ematen, eta larunbat goiza musika eta kolorez bete zuten atzo; Tolosako inauterien egun handienerako ordu gutxi falta direnaren seinale

Erraldoi eta Buruhandien konpartsako kideak izan ziren irteten lehenak, Tolosako dultzaineroekin batera. Gaztetxoenen arreta piztu zuten; bai buruhandiekin beldurtu zirenena, eta baita eurengana hurbildu nahi izan zutenena ere.

Trianguloa plazan, berriz, Tolosaldeko dantzari txikiko partehartzaile guztiak elkartu ziren: Tolosako haur eta gaztetxoez gain, Alegia, Zizurkil, Amasa-Villabona, Hernialde, Berastegi, Berrobi, Lizartza, Anoeta, Irura eta Ibarrako dantzaririk gazteenek parte hartu zuten, eta Itsasondoko dantza taldeak ere izan zuen ordezkaritzarik, Udaberri dantza taldeak antolatutako kalejiran. Horrela, euskal inauteria Tolosara ekarri nahian, hainbat pertsonaien mozorroak jantzi zituzten taldeko arduradunek.

Txarangak, ia 24 orduz

Inauterien ezaugarririk bereizgarriena izaki, txaranga doinuek ez zuten hutsik egin Zaldunita bezperako goiza girotze horretan, eta Kabi Alai txaranga kalez kale ibili zen. Musika eskolako ikasleen banda, ere, inauterietako doinuak eskainiz aritu zen.

Aiz Orratz elkarteak, berriz, iaz estrainekoz plazaratutako txutxu trena martxan jarri zuen atzo goizean.

Ordu erdiz behin osatu zuen ibilbidea, herrian barrena. Haur, gazte eta gurasoek trenean bertan hartu zuten aterpe.

tolosa@hitza.info

Euskal Herriko hainbat txokotako inauteria ekarri zuten, gaztetxoenek, Tolosako kaleetara. ITZEA URKIZU

Erraldoiek gazte nahiz helduen arreta pizten dute beti. I. URKIZU

Badira buruhandiengana gerturatzen diren haurrak. Txarangek kalea bete zuten atzokoan ere. I. URKIZU

Aurreikusitako ibilbidea moldatu zuten, euria zela eta. I. URKIZU

Danbor eta makila hotsak inauteriari deika

Haurren eta helduen danborradek borobildu dute, euripean igaro den Zaldunita bezpera

Itzea Urkizu

Bozgorailuetako inauteri-musikaren erritmora astindu zituzten atzo, haur, gazte eta helduek, danbor eta makilak. Zaldunita bezperako jarduerak borobildu zituzten bi ekitaldiek.

Zerura begira igaro zuten egun, Aiz Orratz elkarteko kideek, haur danborrada zela eta. 17:00etan irtetekoak ziren, eta aterrune bat aprobetxatuz, aurrera jarraitzea erabaki zuten.

Parte hartu zuten ehunka haur eta gaztetxoek, euripean ere, gogoz jo zuten danborra, eta panderoekin dantzan ere aritu ziren asko. Amaieran, berriz, Txu-txu trenean burutu zuten ibilbidea, pasa den astean Aiz Orratzeko mozorro lehiaketa irabazi zutenek.

Aipatzekoa da, aurreikusitako ibilbidea moldatu behar izan zutela eguraldia medio, eta ez zutela Trianguloa plazan geldialdirik egin.

Helduak ere euritan

Talde bakoitza bere elkartetik irten zen, atzo, helduen danborradarekin Trianguloa plazan hasteko.

Afalaurreko tartean espaloietan bildu zen jendea eurei begira, eta hauek ere, haurren gisa berean, irribarrez erantzun zieten eguraldiaren ajeei.

tolosa@hitza.info

Euriaz babestu behar izan zuten, atzo, danborradako haurrek. Gogotsu aritu ziren hala ere. I. URKIZU

Zerkausian aterpe hartu zuten helduen danborradako kideek. A. IMAZ

Irudia

HERRIRA-REN ELKARRETARATZEA

Euskal preso eta iheslarien eskubideak aldarrikatzeko elkarretaratzea egin zuten atzo iluntzean Tolosako inauterietan, Herrira mugimenduak antolatuta. Trianguloa ondotik igarotzen den errepidearen alde banatan, 70 pertsona jarri ziren, eskuetan pankartak edo preso eta iheslarien inguruko banderolak zituztela. Hogeita hamar minutu iraun zituen elkarretaratzean, eskualdeko herritarrak ikus zitezkeen, baita Bilduko hainbat udal ordezkari ere. A. IMAZ

Iriarte jatetxea
INAUTERIETAKO MENUA
HEGALUZE MENDREZKA ENTSALADA , PIPERMORROEKIN ETA TIPULINAREKIN
ALKATXOFA SALTEATUAK IBERIKO URDAIZPIKOAREKIN
GANBOIA PLANTXAN
LEGATZA PLANTXAN BARAZKI KURRUXKATXUAREKIN EDO TXERRIKUMEA
POSTREA: FRUTA ZUKUA ETA TXOKOLATEZKO BROWNIEA
Edaria: Kriantza, txuria...
BEZa barne: 40 euro
GARRAIO ZERBITZUA ESKAINTZEN DUGU JATETXERA JOAN ETORRIA EGITEKO
INFORMAZIO GEHIAGORAKO DEITU
www.iriartejatetxea.com • J.M. Goikoetxea, 34 • BERROBI • Tel.: 943 683 078

Makil dantzarien txanda, Amezketan eta Abaltzisketan

Abaltzisketako txantxoak eta Amezketako talai dantzariak irtengo dira gaur, baserriz baserri

Iñigo Terradillos

Tolosako inauterien sona gure eskualdeaz haratago doa, baina badira gurean tradizio eta historia luzeko inauteriak ere. Landa eremuko inauterietan zintzarriak, koloreak eta dantzaren desfileak egiten dituzte, soroz soro edo baserriz baserri. Helburu edo esanahi zehatzik izan ez arren, antza, lurraren emankortasuna dute xede ospakizun hauek. Gurean, Abaltzisketan eta Amezketan ditugu inauteri hauen eredu.

Batean zein bestean, mozorroturiko herritar talde bat aritzen da, musikaz eta umore onaz lagundurik, dantzan, baserriz baserri, puska biltzen edota eskean.

Abaltzisketaren kasuan, gaur aterako dira txantxoak. Zortzi dantzariz, soinujoleaz eta bi mozorroz osaturiko taldea igaroko da herriko baserrietatik barrena. Txantxoek bikoteka dantzatzen dute, alkandora eta galtza zuriak eramaten dituzte jantzita, txapela gorria borla zuriekin buruan, gorbata beltza eta bi ezkon-mantoi koloretsuak sorbaldetan.

Mozorroaren pertsonaia bat mahoizko galtzekin, alkandora zuriarekin, blusa beltzarekin, abarkekin eta txapela beltzarekin janzten da. Arpegia margotuta eramaten du ezagutu ez dezaten, eta saskia makil bati loturik izaten du, puskak biltzeko. Beste mozorroa garbitzailea da. Aurrekoaren janzkera bera darama, eta bere egitekoa etxeko ataria garbitzea izan ohi da.

Amezketan, bi egunez

Baserriz baserri egiten duten dantza makil dantza erraz bat izaten da, bi makila txiki eskuetan dituztela bikoteka egiten dutena. Amezketako talai dantzarien musika bera erabiltzen dute, baina amezketarren kasuan, arinagoa da. Musikaz gain, dantza ere bestelakoa da, eta horrez gain, bada beste aldaketarik, Amezketako talai dantzariak bi egunez irtengo baitira eskean, gaur eta bihar.

Hemen ere, zortzi lagunez osaturiko taldea aritzen da dantzan, eta Abaltzisketan denak mutilak badira, Amezketan neskek nahiz mutilek hartzen dute parte. Talai dantzariek mahoizko galtzak, alkandora zuria, gerriko eta txapela beltzak, abarkak eta lepoko koloretsua daramate soinean. Taldearekin batera eskerako poltsa eramaten duena eta soinu jolea ere izaten da.

Oso bereziak dira gaurko eta biharko eguna bi herrietan, bai dantzan eta eskean ariko direnentzat, bai eta igaroko diren baserrietako jabeentzat ere.

Amezketako talai dantzariak pasa den urtean, makil dantza egiten. I.G.L.

↓ Egitaraua

ABALTZISKETA

■ **Otsailak 10, igandea.**
08:00: Dantzariak, bi mozorroak eta soinu jotzailea elkartuko dira, eta Orendain aldean dauden baserriak zeharkatuko dituzte.
10:30: Elizaren aurrean Makil Txiki dantza eskainiko dute.
13:00: Makilen talaia zabalduko dute Txindokipean; mezatik ateratzen diren guztiei dantza egingo diete, eta ondoren, Larraitz aldeko baserrietara joko dute.

AMEZKETA

■ **Otsailak 10, igandea.**
08:00: Herriko plazan bilduko dira, eta puska biltzen hasiko dira baserriz baserri. Zortzi lagunez osaturiko bi taldetan banatuko dira: lehen taldekoek, Sakelatik abiatuta, Ugarten dantzatuko dute, eta Zubillaga auzora joango dira. Bigarren taldekoak, Petxunetik abiatuta, Zubillaga auzora joango dira dantzatzera. Zubillagako bidegurutzean, bi taldeak elkartuko dira eta herriko kaleak zeharkatuko dituzte. Azken dantzak Ergonen egingo dituzte.

■ **Otsailak 11, astelehena.**
08:00: Plazan elkartuko dira, eta bi taldetan banatuta, geratzen diren baserrietara eta Bedaio eta San Martin aldekoetara joango dira. Lehen taldea Ugartetik Iparretxiki baserrira joango da, eta bigarrena, berriz, Liola aldetik gerturatuko da Iparretxiki baserrira. Bertan elkartuko dira dantzari guztiak, eta elkarrekin, inauterietako azken dantza saioa eskainiko dute.

Jokin Artola • Amezketako talai dantzaren antolaketa taldeko kidea

«Tradizioari jarraipena emateko ez dago arazorik, gazte asko baitator»

I. Terradillos Amezketa

Jokin Artolak gertu gertutik ezagutzen du talai dantza. Oso gazte zelarik hasi zen, eta oraindik jarraitzen du gaurko eta biharko egunez makil dantza eskainiz baserriz baserri. Azken urteetan herritar gazte ugarik nahi duela parte hartu nabarmendu du.

Zenbatgarren aldiz aterako zara makil dantza egitera?

16 urterekin hasi nintzen, eta aurten hamaikagarren urtea dut. Taldeko beteranoena naiz. Oso gustura aritzen naiz eta oso ongi pasatzen dugu, horregatik errepikatzen dut urtero.

Nolatan hasi zinen?

Lagunen batek esan zidan, eta animatu egin nintzen. Gaztetxoa zarenean zu baino helduagoekin joateak ere asko erakartzen du, ilusioa egiten du.

Urte batean parte hartu, eta orain ezin utzi.

Urte batean probatzen duenak, normalean hurrengo urtean errepikatu egiten du. Gero, urte ugari daramatzatenek errelebua hartu ohi dute, gazteagoei lekukoa emanez.

Zer nabarmenduko zenuke talai dantzez?

Giro berezia sortzen da baserrietan hamaiketakoa edo salda edo kafea ematen digutenean eta eurekin kontutan aritzen garenean.

Oso gustura hartzen dute zuen bisita.

Bai. Gu noiz ailegatuko itxaroten egoten dira. Baserri askotan jende heldua dago, herrira nekez jaisten dena, eta asko eskertzen dute gure bisita.

Nola prestatzen duzue gaurko eta biharko eguna?

Entsegu bat egiten dugu dantzak ikasteko. Dantza dakitenak ez dakitenekin jartzen dira, eta horrela ikasten dute. Aurten, esaterako, estreinako aldia zuten bost gazte azaldu dira.

Herrian nola zabaltzen duzue talai dantzan parte hartzeko mezua?

Kartelak jartzen ditugu, eta ahoz aho ere zabaltzen dugu. Horrez gain, Gaztelekuko hezitzaileek ere animatu dituzte gazteak parte hartzera.

Erraza al da gazteak animatzea?

Aurten ere jendea parte hartzeko gogoz dagoela nabaritu dugu. Xarma berezia sortzen du talai dantzak, eta erraza da gazteak erakartzea, izan ere, umore onean igarotzen da eguna, dantzak ez du batere zailtasunik eta baserrietan biltzen dugun diruarekin afaria egiten dugu. Osagai politak dira gazteak animatzeko.

Talai dantzen jarraipena, beraz, ziurtaturik dago.

Urte batzuetan beldurrez egon gara, jende gutxiago animatzen zelako, baina azken urteetan gazte askok nahi dute parte hartu, beraz, oso pozik gaude.

Amezketako ia baserri guztietan makil dantza egiteko nola antolatzen zarete?

Taldeka banatzen gara. Badira gaur eta bihar dantzatuko dutenak, eta beste batzuk egun bakarrean, igandean ala astelehenean egiten dute. Gu iganderako, gaurko, 16 lagun elkartzen saiatzen gara, eta horrela bi talde egiten ditugu. Talde bat Ugarte auzora joaten da, eta bestea Petxunetik Zubillaga auzora. Bi taldeak Jauregiaundi inguruan elkartzen dira, eta azken dantzak elkarrekin egiten dituzte.

Neskez nahiz mutilez osaturiko taldeak izan daitezke.

Bai. Garai batean mutilek dantzatzen zuten, baina talai dantzak berreskuratu zirenean neskek nahiz mutilek dantzatzeko aukera zabaldu zen. Kontua da, gaur egun, mutil gehiago garela neska baino, azken urteetan neska gutxi animatzen direlako.

Hamabi txirrindularik osatuko dute Tolosa CF Caja Rural Bidebide taldea

Tolosako Udala, ekainean txirrindulari lasterketa bat antolatzeko lanetan dabilela esan du Iriartek

Asier Imaz Tolosa

Tolosa CF txirrindulari taldeko juniorrak, atzo, taldearen aurkezpenean. A.I.

Tolosa CF Caja Rural Bidebide txirrindulari taldea aurkeztu zuten atzo, Tolosako udaletxean. Taldeko arduradunekin eta txirrindulariekin batera, Ibai Iriarte Tolosako alkatea egon zen bertan.

Taldea hamabi txirrindularik osatzen dute: bi kadetek, zazpi juniorrek eta hiru elitek. Euskal Herrikoak eta kanpokoak dira taldekideak, eta errepideko denboraldiari atzo arratsaldean ekin zioten. Taldeko kideen esanetan, helburuen artean Euskadiko Trofeoa dute. Horrez gain, oraindik zalantzan dagoen Espainiako Kopa jokatuko balitz, bertan itxura txukuna eman nahiko lukete: «Talde ona dugula uste dugu; batzuk, nazio arte mailan ibili izan dira, eta emaitza onak lortuz gainera. Iaz, Espainiako Kopan, juniorretan eta kadeteetan taldekako sailkapen nagusia irabazi genuen».

Ibai Iriarte Tolosako alkateak herriarentzat horrelako talde bat izatearen garrantzia azpimarratu nahi izan zuen, baita udalaren konpromisoa parekidetasunaren aldeko borrokan: «Tolosarrontzat luxua da gure herriaren izenean horrelako taldea izatea. Kirola eta osasuna sustatzea udalaren helburuen artean dago, baita parekidetasunaren alde aritzea ere». Ibai Iriartek, ekainean Tolosan txirrindulari lasterketa bat antolatzeko lanetan dabiltzala gaineratu zuen.

Perurena 300 kiloko harria jasotzen saiatuko da, gaur

Leitzarrak herritarren aurrean egingo du saiakera, Amazabal pilotalekuan 13:00etan hasiko den jaialdian

A. Imaz Leitza

Inaxio Perurena harri jasotzaileak marka ahalegina egingo du gaur, hilaren 10ean, Leitzako Amazabal pilotalekuan, 13:00etatik aurrera. Leitzarra, beste behin ere, 300 kiloko harria altxatzen saiatuko da.

Aurreko saiakeretan bezala, bost minutuko txanda izango du harri jasotzaileak harria bizkarrean berdintzeko. 300 kilokoarekin egiten duen hirugarren ahalegina izango da. Lehen saiakera Asteasun egin zuen Perurenak. Harria jaso ondoren, bizkarren berdintzen ari zela, atzera erori eta harria hautsi egin zitzaion. Bigarren saiakera, berriz, iragan azaroan egin zuen, Leitzan. Harriarekin bi ahalegin egin ondoren, amore eman beharra izan zuen. Urtarrilaren 20rako iragarri zuen hirugarren ahalegina, baina, gaixo zegoenez, saiakera atzeratu beharrean izan zen.

Gaur helburua lortzen baldin badu, 300 kilotara iritsi diren harri jasotzaileen taldean sartuko da Inaxio Perurena, hau da, bere aita Iñaki Perurena, Mieltxo Saralegi leitzarra eta *Gibitegi* dauden taldean.

Oinatz Bengoetxea leitzarrak ezin izan du partida irabazi

Xala-Barriolak bihar jokatuko dute Tolosako Beotibar pilotalekuan, Ezkurdia-Zubietaren aurkako partida

A. Imaz Leitza

Iruñeko Labrit pilotalekuan Binakako Txapelketako partida jokatu zen atzo arratsaldean. Oinatz Bengoetxea-Beroizek ezin izan zuten garaipena lortu Olaizola II-Ibai Zabalaren aurka. Partida 19-22ko emaitzarekin amaitu zen.

Parekatua izan zen, eta lau pilotarietan ondoen Beroiz atzelaria aritu zen. Aurrean koadroetan tanto politak egin zituzten.

Abel Barriolak bihar jokatuko du txapelketako partida, Xalarekin bikotea osatuz. Lapurtarra lesiotik errekuperatu denez, berriro txapelketan sartu du Aspe enpresak. Horren ondorioz, azken bi jardunaldietan bere lekua bete duen Jon Jaunarena kanpoan gelditu da. Xala-Barriola eta Ezkurdia-Zubietaren arteko partida bihar, hilaren 11n, inauterietako jaialdiaren barruan jokatuko da Beotibar pilotalekuan; 16:30ean hasiko da pilota festa. Jaialdiarekin jarraituz, Asteartitan, Berasaluze VIII-Albisu eta Arretxe II-Beginoren artekoa ikusteko aukera egongo da Beotibarren.

Otaegi eta Otaño urrezko aizkolarien finalaurrekoan, gaur

Tolosaldeko kirolariek Atutxa II.a eta Mugertza II.a izango dituzte aurkari, Mendaron

R.C.

Joseba Otaegi zizurkildarrak eta Unai Otaño ibartarrak Binakako Eusko Label Urrezko Aizkolarien Txapelketaren finalaurrekoa jokatuko dute gaur, hilak 10, Mendaroko Goñati pilotalekuan.

Joseba Otaegik eta Unai Otañok iazko txapelketa irabazi zuten, eta adituek diotenez, aurtengoan ere finalerako faboritoak dira. Dimako Atutxa II.a eta Mutrikuko Mugertza II.a izango dituzte gaurko finalaurrekoan aurrez aurre, itzulerakoa izango den lehian.

Joanekoa duela 15 egun jokatu zuten Iraetan. Bertan, Otaegi eta Otaño nagusitu ziren.

Mendaron gaur jokatuko den finalaurrekoa 12:00etan hasiko da, eta herri kirol jaialdi baten barruan ariko dira aizkolariak. Aurretik, Izeta II.a harri jasotzaileak marka hobetzeko saiakera egingo du, hau da, 137 kiloko errektangular zaharra eta 100 kiloko kubiko zaharra altxa beharko ditu. Harri jasotzaileak 30 minutuko proba egingo du, harri bakoitzarekin 15 minutu egin beharko dituelarik harri batetik bestera zenbaketa eten gabe.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

2013-02-10 Eguraldia

Goiza | Arratsaldea | Tenperatura 13º 7º | Bihar

GOIZA	EURIA
ARRATSALDEA	EURIA
BEROENA	9º
HOTZENA	5º

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza. Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo @hitza.info
Anoetaldea: 687 410 022. anoetaldea @hitza.info
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea @hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea @hitza.info
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea @hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak: BERTAKO HEDABIDEAK, Galtzaundi euskara taldea eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile | Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

TOLOSAKO INAUTERIAK

▪ **08:00.** Diana, Tolosako Musika Bandarekin.
▪ **08:45.** Herriko Txistulari Bandak ohiturazko ibilbidea eginez, Inauterietako Zortzikoa joko du.
▪ **10:00.** Txarangen irteera izango da.
▪ **11:00.** Plaza Berrian sokamuturra Kabila txarangak alaituta.
▪ **11:00.** Karroza eta konpartsen irteera.

▪ **15:45.** Udal Txistulari Bandak Idiarena pieza joz egingo du ohiturazko ibilbidea.
▪ **16:00.** Kalejira Urdiña Txiki, Alcoyano eta Aiz Orratz txarangekin, Plaza Zaharretik Zezen Plazaraino.
▪ **16:30.** Zezenak zezen plazan; txarangak eta txistulariak arituko dira ikuskizuna alaitzen. Ondoren kalejira.
▪ **18:00.** Txosnagunean kontzertua: 3gabe2, Laket, Dj Bull eta Dj OGT izango dira.
▪ **19:00.** Dantzaldia Berdura Plazan Urdiña Txiki, Alcoyano eta Aiz Orratz txarangekin.
▪ **23:30.** Kalean eta Oriako Txaranga txarangak kalez kale ibiliko dira.

AMEZKETAKO INAUTERIAK

▪ **08:00.** Herriko plazan bilduko dira, eta puska biltzen hasiko dira baserriz baserri.

ABALTZISKETAKO INAUTERIAK

08:00. Orendain aldean dauden baserriak zeharkatuko dituzte.
10:30: Elizaren aurrean Makil Txiki dantza eskainiko dute.
13:00: Mezatik ateratzen diren guztiei dantza egingo diete, eta ondoren, Larraitz aldeko baserrietara joko dute.

Garraio publikoa

RENFE

▪ **Brinkola-Irun (Tolosako ordutegia):** 11:36, 12:16, 12:36, 13:16, 13:46, 14:16, 14:46, 15:16, 15:56, 16:36, 17:16, 17:56, 18:35, 19:31, 20:26, 20:36, 20:53, 23:14, 01:00, 03:00 eta 05:00. Trenak ez dira Apeaderoan geldituko.
▪ **Irun-Brinkola (Tolosako ordutegia):** 10:44, 11:14, 11:44, 12:14, 12:44, 14:14, 15:14, 17:12, 17:44, 18:44, 19:14, 19:44, 20:14, 20:35, 21:14, 23:16, 03:10 eta 05:10. Trenak ez dira Apeaderoan geldituko.

TSST

▪ **23:00etatik 04:00etara orduro.** ASTEASU- Zizurkil-Villabona-Irura-TOLOSA (Santa Klara).
▪ **23:30etik 04:30era orduro.** TOLOSA (Santa Klaratik) - Anoeta- Irura-Villabona-Zizurkil- ASTEASU.
▪ **07:00etatik 16:00etara orduro eta horrez gain, 10:30, 11:30 eta 12:30ean. 16:45etik 20:45era ordu erdiro, azkena 21:45ean. Ez da gaueko zerbitzurik egongo.** DONOSTI-Lasarte-Andoain-Villabona-Irura-TOLOSA.
▪ **08:00etatik 16:00etara orduro, eta horrez gain 11:30, 12:30, 13:30ean. 16:00etatik 20:30era ordu erdiro, azkenak 21:15, 21:45 eta 22:45ean (Lasarte).** TOLOSA-Irura-Villabona- Andoain-Lasarte-DONOSTI.

TOLOSALDEA BUS

▪ **00:00-02:00-03:30.** TOLOSA (Zumardi Txiki)- Amarotz-Ikaztegieta-Alegia-Amezketa-TOLOSA.
▪ **01:00-02:45-04:15.** TOLOSA (Zumardi Txiki)- Amarotz-Ibarra-Berrobi-Eldua-Elduain-BERASTEGI.

HIRIBUSA

▪ **10:30, 14:30, 16:00 eta 22:00etan.**
Ibilbidea:
ZUBI BERRIA- Usabal-industrigunea-Amarotz (beheko geltokian)-Kondeko aldapa- ZUBI BERRIA.

GAUR

▪ **Ibarra.** Egunekoa eta gauekoa: Lejeune Maset, L. Euskal Herria kalea, 46. Telefonoa: 943 67 32 74.
▪ **Leitza.** Larraia, M. I. Elbarren, 95. Telefonoa: 112.

HITZAk ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak

AGURRAK
943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak

Gora eta behera

URTERO ERREPIKATZEN DA

Sei egun dituzte Tolosako inauteriek, eta horietatik azken hiru egunak dira mozorrotzekoak. Hori da Tolosako inauterien ezaugarrietako bat. Urtero-urtero, ordea, mozorroa soinean jantzita inguratzen diren kanpotarrak egon ohi dira. Atzokoan ere, Tolosako kaleetan zehar mozorrotutako pertsonak ikusi ahal izan ziren bertakoak ez direla nabarmenduz. Gaur, Zaldunita eguna izanik, mozorro, konpartsa eta karrozak izango dira nagusi. ITZEA URKIZU